10. Egoera edo arazo errazei buruzko txosten bat aurkeztea euskarri digitalean eta paperean; hainbat iturritatik informazioa jasotzea (zuzenekoak, liburuak, Internet...); lan-plangintzari jarraitzea, eta ondorioak ateratzea.

10.1. Ea plangintzarik egiten duen hainbat iturritatik informazio esanguratsua lortzeko, aurrehipotesiak planteatuz eta iturriok sistematizatuz.

10.2. Ea jaso eta hautatzen dituen, helburu zehatz batekin, egoerei eta gertakizunei buruzko hainbat iturritako datuak (iturri zuzenetakoak, liburuetakoak, komunikabideetakoak, Internetekoak...).

10.3. Ea antolatu eta aztertzen duen jasotako informazioa (laburpenak, galdetegiak...) helburu jakin batekin, ondorioak ateratzeko.

10.4. Ea ematen duen lortutako konklusioen berri, kasuan kasuko metodo egokiena (grafikoa, idatziz...) eta forma komenigarriena hautatuz (horma-irudia, laburpena, koadroa...) eta ahalik eta era argienean, dela euskarri digitalean dela paperean.

10.5. Ea era txukunean eta argiro azaltzen dituen lan-plangintza jakin bati jarraituz egindako prozesua, emaitzak eta ondorioak.

ARTE HEZKUNTZA

SARRERA

Etapa honetan, musika, arte plastikoak eta ikusizko arteak sartzen dira Arte Hezkuntza irakasgaiaren barruan. Arte-hezkuntza lantzekoan, kontuan izan behar dugu arte-adierazpenak beti ditugula ingurunean eta gure bizitzetan. Ikusizko arteen eta musikaren eremuan kultura jasotzat hartu izan dena ez ezik, kontsumitzen ditugun soinu, objektu eta irudi gehienak ere arte-adierazpenak dira; izan ere, gero eta bilgarri estetiko zainduagoan iristen zaizkigu. Mota guztietako erreferentzia estetikoek iragazten dute gure gizartea, eta erreferentzia horiek daude gizarteratze-prozesuetan, nortasuna eraikitzeko prozesuetan, bai eta bizi garen munduari buruz ditugun ideiak egiteko prozesuetan ere. Bestalde, erreferentzia estetiko horiek biltzen dituen kultura-testuinguruak aldaketa nabarmenak izan ditu; batez ere, informazio- eta komunikazio-teknologien garapenaren eraginez. Izan ere, garapen horrek musikaren eta irudien kontsumo masiboa eragin du, eta gero eta lotura estuagoak eta aberatsagoak sortu ditu hainbat motatako arte-adierazpenen artean; hau da, musikaren, dantzaren, ikusizko arteen eta masen komunikabideetako beste zenbait produkturen artean.

Une honetan, arte-hezkuntzak garrantzi berezia du; izan ere, eguneroko bizitzan ikusizko informazioak eta musika-informazioak jasaten duten manipulazioak (arte-xedearekin edo xede hori gabe) arteak eskatzen duen pentsamendu-ahalmenaren parekoa izateko beharra sortzen eta eskatzen du. Arte Hezkuntza irakasgaiak alderdi hauek guztiak garatzeko aukera ematen du:

10. Presentar un informe, utilizando soporte papel y digital, sobre problemas o situaciones sencillas, recogiendo información de diferentes fuentes (directas, libros, Internet …), siguiendo un plan de trabajo y expresando conclusiones.

10.1. Planifica para obtener información relevante de las distintas fuentes, se plantea hipótesis previas, sistematizándolas.

10.2. Recoge y selecciona datos provenientes de diversas fuentes (directas, libros, medios de comunicación, Internet,...) sobre situaciones y hechos con un determinado objetivo.

10.3. Organiza y analiza las informaciones recogidas con un determinado objetivo (resúmenes, encuestas...) para extraer conclusiones.

10.4. Comunica las conclusiones obtenidas por el método más adecuado (gráfico, oral, escrito, uso de las TIC...) y la forma más conveniente (mural, resumen, cuadro...) con la mayor claridad posible, en soporte papel o digital.

10.5. Expresa de forma ordenada y clara el proceso seguido y los resultados y conclusiones a los que se ha llegado en un plan de trabajo determinado.

EDUCACIÓN ARTÍSTICA

INTRODUCCIÓN

A la hora de abordar la Educación Artística, que en esta etapa engloba la música y las artes plásticas y visuales, hemos de tener en cuenta que las diferentes manifestaciones artísticas tienen una presencia constante en el entorno y en la vida de las personas. No sólo las que se han venido definiendo como alta cultura en el ámbito de las artes visuales o de la música, sino la mayor parte de los sonidos, objetos e imágenes que consumimos, ya que se nos presentan bajo un envoltorio estético cada vez mas cuidado. Vivimos en una sociedad filtrada por referencias estéticas de todo tipo que están presentes en nuestros procesos de socialización, de construcción de identidad y también en la elaboración de las ideas que tenemos sobre el mundo que habitamos. Por otro lado, en el contexto cultural que acoge estas referencias estéticas se han producido notables transformaciones, en gran parte debidas al desarrollo de las tecnologías de la información y la comunicación, que han generado el consumo masivo de música e imágenes y han propiciado encuentros cada vez mas estrechos y ricos entre expresiones artísticas diversas: música, danza, artes visuales y otros productos de los medios de masas.

En este momento, la educación artística es de especial importancia ya que la manipulación (con finalidades artísticas o no) de la información visual y musical en la vida cotidiana, genera y necesita de capacidades de pensamiento más cercanas que nunca a las requeridas en el arte. La educación artística posibilita el desarrollo de la creatividad, de la imaginación, de la autonomía,

sormena, irudimena, autonomia, pertzepzio- eta mugimendu-garapena, sentikortasun estetikoaren garapena, norberaren adierazpenaren garapena, pentsamendu kualitatiboarena, emoziozko adimenarena, komunikatzeko eta gizarteratzeko ahalmenarena... Ahalmen horiek guztiek iragazi behar dituzte ikusizko produktuekin eta musika-produktuekin izaten ditugun topaketa guztiak.

Bestalde, arte-hezkuntzak gaur egun duen adierak ekoizpen hutsaren adiera gainditzen du: tresna teknikoak eta hizkuntza-tresnak irakastea, arte-gertaeren kultura- eta gizarte-alderdietan sakontzeko. Gure gizartean, hainbat bitarteko erabiliz egindako ikonoek —tradizionalak edo teknologiaren bidez eginak— garrantzi eta potentzialtasun handia dute, eta, horrez gainera, kontsumo-elementu bihurtuak dira. Hori dela eta, ikono horiek interpretatzen eta kritikoki aztertzen irakatsi behar zaie ikasleei. Arte mota guztiak ideien, sentimenduen, sinesmenen eta pertsonen jarreren adierazpenak direla jabetu behar dute, eta, horrez gainera, pertsonen edo taldeen nortasunaren adierazgarri ez ezik, nortasunaren eratzaile ere badirela ohartu behar dute. Artearen erabileraren garrantzia, gizakien kultura-ekoizpenarekin duen lotura eta arteak bizitzarekin duen harreman zuzena mitifikazioetatik eta esentzialismoetatik haratago doa, eta gelan landu behar da, gure kulturan artearen eta gizakien bizitzaren artean jarrita dagoen distantzia handia alde batera uzteko modua baita.

Hortaz, artearen alorra transdiziplinarietaterako, curriculumeko beste irakasgai batzuekin lotura naturala egiteko, toki ezin hobea da, eta errealitatea hobeto ulertzen eta gozatzen laguntzen du. Halaber, besteen begiradetara, mundua sentitzeko beste modu batzuetara hurbiltzeko aukera ematen du. Modu horiek agerian geratu izan dira eta agerian geratzen dira musika-kulturaren eta ikusizko kulturaren produktuetan.

Etapa honetan, ikasleek aldaketa handiak izaten dituzte, bai irudien, marrazkien, musikaren... sortzaile gisa, bai irudi, marrazki, musika... hartzaile eta erabiltzaile gisa ere. Ludikoki erabiltzetik, guztiz uztera igarotzen dira ekoizpenaren kasuan, eta hazkunde esponentziala izaten dute, berriz, erabiltzaile direnean, kasu askotan akritikoa. Aldaketa horietako asko ikaslearen gizarte-ingurunean alderdi erabakigarriak direnek eragiten dituzte; besteak beste, alderdi hauek: modak, gizartean dauden komunikabideetako eta helduen arteko ikusizko irizpide estetikoak eta musika-irizpideak... Beste zenbait irakasgaik ez bezala, irudiek eta musikak (artistikoak edo ez-artistikoak) ikasleen bizitzako alderdi guztietan dute eragina, baita oso alderdi garrantzitsuetan ere; besteak beste, emozioetan, nortasunean eta sozializazioan.

Prozesu horiek guztiak ardura handiz zaindu behar dira haurtzarotik aurrenerabezarora igarotzeko tartean, distortsiorik eta zulorik ez sortzeko haien bizitzan gero eta garrantzi handiagoa duten ikusizko erreferente estetikoen eta musika-erreferenteen eta eskolan ikasten dituzten erreferenteen artean. Eskolako erreferenteek

el desarrollo perceptivo y motriz, el desarrollo de la sensibilidad estética, de la expresión personal, del pensamiento cualitativo, de la inteligencia emocional, de la capacidad de comunicación y socialización..., capacidades que deben filtrar nuestros encuentros con los productos visuales y musicales.

Por otro lado, la educación artística tal y como actualmente se entiende, trasciende de la mera producción: enseñar herramientas técnicas y de lenguaje para adentrarse en la dimensión cultural y social de los hechos artísticos. La importancia, dimensión y potencialidad de los elementos icónicos en nuestra sociedad, realizados por medios muy diversos —tradicionales o soportados en la tecnología—, y el haberse convertido en elementos de consumo, exigen enseñar al alumnado la interpretación y el análisis crítico de los mismos. Exige hacerles conscientes de que toda forma de arte es expresión de ideas, sentimientos, creencias y actitudes de la persona, y que, además de ser reveladora de la identidad de la identidad de la persona o grupo que actúa, es un agente reconfigurador de la misma. La dimensión de uso del arte, su entroncamiento en la producción cultural humana como una necesidad en relación directa con la experiencia vital, más allá de mitificaciones y esencialismos, debe ser trabajada en el aula, como forma de romper con la enorme distancia instalada en nuestra cultura entre el arte y la vida de las personas.

En ese sentido, el área artística se sitúa en el lugar privilegiado para la transdisciplinariedad, para la conexión natural con otras materias del currículo, colaborando en una mejor comprensión y disfrute de la realidad. Permite, asimismo, acercarse a la mirada de los otros, a la diversidad de maneras de experimentar el mundo, que se han manifestado y se manifiestan en los productos de la cultura musical y visual.

En esta etapa, el alumnado está expuesto a una serie de cambios importantes, tanto en su faceta de productor de imágenes, dibujos, música… como en su faceta de usuario, de receptor de los mismos, pasando del disfrute lúdico al abandono en el caso de la producción y a un crecimiento exponencial de su utilización, muchas veces acrítica, en la faceta de usuario. Muchos de estos cambios son inducidos por una serie de factores que actúan de manera determinante en el entorno social del niño y la niña : modas, criterios estéticos visuales y musicales de los medios y del arte adulto presentes en la sociedad… A diferencia de otras materias, las imágenes y la música (artísticas o no) impregnan toda la vida del alumnado en aspectos tan importantes como sus emociones, su identidad o su socialización.

Estos procesos merecen un esmerado cuidado en el paso de la infancia a la preadolescencia para que no se generen distorsiones y brechas entre sus referentes estéticos visuales y musicales, cada vez más importantes en su vida y aquellos de la cultura escolar. Esta última deberá ayudar al alumnado a comprender la cultura en la

irakatsi behar diete ikasleei berak bizi diren kultura ulertzen, harekin elkarrizketan arituz, irizpide baliagarriak egin ditzaten eta ikuspegi kritikoa gara dezaten.

Horrez gainera, inoiz ez dira bakartu behar alderdi erreflexiboa eta ekoizpena, eta ez da bat bestearen ordezko aukeratzat hartu behar, batez ere etapa honetan; izan ere, haurrek oso prozesu aldakorrak eta delikatuak izaten dituzte ekoizle-zereginetan. Prozesu horiek ardura handiz zaindu behar dira, eta urte horietan ekoizlelana ez uzteko, beharrezko laguntza eta bitartekotzaprozesuak eman behar zaizkie.

Hain zuzen ere, ikasleen lanen ekoizpena beti iragazi, eho eta jasan izan du ikasleak arte-jarduerari, artearen funtzioei eta arte-ekoizpenak ikaslearen bizitzan duen zentzuari buruzko ikuskerak. Ikuskera horrek euskarri nabaria du gizartean, eta eskolak kontuan hartu behar du euskarri hori. Horrez gainera, eskolak aldamioak eman behar dizkio, batez ere ekoizpenean, eta ulertu behar du artean ere inguruko jendearen eta bizi garen kulturako ekarpenen laguntzaz ikasten dugula.

Arte Hezkuntzaren alorrak Lehen Hezkuntzan dituen edukiak definitzeko, eta aurreko hausnarketekin koherentzian, kontuan hartu behar dugu, lehen-lehenik, zein den Arte Hezkuntzaren azterketa-gaia, kalitatearen irizpidea aintzat hartuta beti:

– Kultura-ondare tradizionalaren eta garaikidearen musika eta ikusizko arteak.

– Ikusizko kultura-ekoizpena eta musika-ekoizpena, ez bakarrik ekoizpen artistikoa (herri-artea eta —musika, diseinua, komunikabideen eta informazio bitartekoen ikusizko erreferente estetikoak eta musikaerreferenteak, moda...).

Eta, bigarren, orekaz landu beharko ditugu pertsonok arte-gertaerei, eta, oro har, produktu estetikoei heltzeko ditugun bi moduak:

– Ekoizpen-alderdia: irudien, musikaren, mugimenduaren... bitartez, adieraztea, sortzea, komunikatzea...

– Alderdi erreflexiboa edo kritikoa, produktu estetikoen erabiltzaile garenez: artearen eremutzat hartzen den inguruneko edo ingurune horretatik kanpoko ikusizko kulturaren eta musika-kulturaren produktuak ikustea, entzutea, aztertzea, interpretatzea, probatzea, gozatzea, sentitzea, ulertzea...

Alorraren azterketa-gaitzat hartu duguna gurutzatu eta ekoizpenaren eta gogoetaren alderdiak barneratuz, ikusizko arteen eta musikaren hizkuntzen berariazko baliabideen eta baliabide teknikoen eta prozesu-baliabideen erabilera kontuan hartzen da, eta oso beharrezko tresnatzat hartzen dira, ekoizpena eta gogoeta garatzeko.

que vive, dialogando con ella, para que elabore criterios útiles y desarrolle el sentido crítico.

Es necesario señalar, también, que en ningún momento esta dimensión reflexiva se entiende aislada o alternativa a la producción, especialmente en esta etapa, en la que los niños y niñas pasan por procesos cambiantes y muy delicados en su faceta de productores, procesos que hay que atender con esmero, procurando los apoyos necesarios y los procesos de mediación que eviten su precoz abandono en estos años.

La producción de obras o trabajos por parte del alumnado, de hecho, siempre ha estado filtrada, entretejida y soportada por las concepciones que éste tiene sobre la actividad artística, sus funciones y el sentido para su vida de lo que está haciendo. Dichas concepciones tienen un evidente anclaje social que la escuela debe contemplar, proporcionando andamiajes, sobre todo en la producción, y entendiendo que, también en arte, aprendemos con ayuda de quienes nos rodean y de las aportaciones de la cultura en la que vivimos.

A la hora de abordar la definición de los contenidos para el área de Educación Artística en la E. Primaria y en coherencia con las reflexiones anteriores, debemos tener en cuenta, en primer lugar, y manteniendo siempre el criterio de calidad, el objeto de estudio propio de la Educación Artística:

– La música y las artes visuales del patrimonio cultural tradicional y contemporáneo.

– La producción cultural visual y musical, no específicamente entendida como artística (arte y música populares, diseño, referentes estéticos visuales y musicales de los medios de información y comunicación, moda...).

Y en segundo lugar, habremos de trabajar equilibradamente las dos maneras con las que las personas nos enfrentamos a los hechos artísticos y a los productos estéticos en general:

– Dimensión productiva: expresar, crear, comunicar…, a través de las imágenes, de la música, del movimiento…

– Dimensión reflexiva o crítica como usuarias y usuarios de productos estéticos: observar, escuchar, analizar, interpretar, experimentar, disfrutar, sentir, comprender... los productos de la cultura visual y musical pertenecientes o no al entorno reconocido como arte.

Entrecruzando el que hemos definido como objeto de estudio del área y cubriendo las dos dimensiones de producción y reflexión, se contempla el manejo de los recursos específicos de los lenguajes y el de los recursos técnicos y procesuales de las artes visuales y de la música, entendiéndolos como herramientas absolutamente necesarias para desarrollar las dos dimensiones de producción y reflexión.

Laneko toki horiek guztiek sare iradokitzaile zabal bat osatzen dute, eta sare horretan barna ibili behar dugu irakasteko eta ikasteko prozesuan, premia bakoitzera eta proiektu jakin bakoitzera ondoen egokitzen den lan egiteko modua aukeratuz.

Nolanahi ere, gure ustez beharrezkoa da sareak dituen eduki moten zirriborroa egitea, bai eta sare horretako geltoki inplizituena ere, zehatzago ordenatzeko eta definitzeko Lehen Hezkuntzako zikloetan. Alor horretan garatuko diren edukien helburua eremu hauei erantzutea izango da:

– Arteen, ikusizko kulturaren eta musika-kulturaren adierazpen-, komunikazio- eta narrazio-erabileren edukiak.

– Musika-hizkuntzaren, hizkuntza plastikoaren eta ikusizko hizkuntzaren baliabideei eta arauei buruzko edukiak.

– Artearen, ikusizko kulturaren eta musika-kulturaren sorkuntza-prozedurak eta –teknikak aztertzen dituzten edukiak.

– Arteak, ikusizko kultura eta musika-kultura sortzen dituen gizartean arteek, ikusizko kulturak eta musika-kulturak dituzten funtzioen eta artikulazioaren edukiak.

– Gertuko eta urrutiko eremuetako ikusizko artesorkuntzen eta musika-sorkuntzen edukiak, ekoizpen-testuinguruak kontuan hartuta.

Hala ere, bi irakasgairekin Musikarekin eta Ikusizkoen Hezkuntzarekin lanean gabiltzanez, edukiak eraginkortasunez antolatu behar ditugu, eta, antolaketa horren bitartez, irakasgai bakoitzaren nortasuna eta biek dituzten toki komunak islatzeko aukera izan behar dugu. Horretarako, aurretik aipatu ditugun bi alderdiak —pertsonek arte-gertaerei heltzeko ditugun bi moduak— erabiliko ditugu, bai erabileraren, bai ekoizpenaren eremuan ere, eta alor bakoitzaren eduki-multzoak egituratzeko ardatz gisa hartuko ditugu.

Horrela, eduki multzo hauek ezartzen dira Lehen Hezkuntzarako:

1. Musika entzumen bidez hautematea eta ulertzea.

2. Musika-adierazpena, -interpretazioa eta –sorkuntza.

3. Erreferente plastikoen eta ikusizko erreferenteen ulermena, pertzepzioa eta interpretazioa.

4. Arte plastikoen eta ikusizko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza.

Arte Hezkuntzak esperimentazioari eta praktikari tarte zabala utziko dioten metodologia-proposamenak irakatsi behar ditu, eta arte-hizkuntzen baliabide teknikoak eta adierazpen-baliabideak erabili. Proposamen horiek prozesu erreflexiboak jaso eta garatuko dituzten planteamenduetatik aztertu behar dira; besteak beste, planteamendu hauetatik:

Todos estos lugares de trabajo conforman una malla sugerente y amplia por la cual transitar en el proceso de enseñanza-aprendizaje, seleccionando la forma de trabajo más adecuada a cada necesidad y a cada proyecto concreto.

En cualquier caso, entendemos que es necesario esbozar los tipos de contenidos que esta red alberga, así como los lugares de parada en ella implícitos, para poder ordenarlos y definirlos más detalladamente en los diferentes ciclos de primaria. Los contenidos que se desarrollarán para este área, se encaminarán a dar respuesta a los siguientes ámbitos:

– Contenidos propios de los usos expresivos, comunicativos y narrativos de las artes y de la cultura visual y musical.

– Contenidos que tratan sobre recursos y convenciones de los lenguajes musical, plástico y visual.

– Contenidos que contemplan los procedimientos y las técnicas de creación en el arte y en la cultura visual y musical.

– Contenidos propios de las funciones y articulación de las artes y de la cultura visual y musical dentro de la sociedad que las produce.

– Contenidos propios de las creaciones artísticas visuales y musicales de ámbitos próximos y lejano en relación con sus contextos de producción.

Sin embargo, al tratar con dos materias diferentes: la música y las artes visuales, necesitamos recurrir a una organización de los contenidos operativa y que permita reflejar tanto las identidades de cada una como los lugares comunes. Para ello, recurrimos a las dos dimensiones, antes señaladas, con la que las personas nos enfrentamos con los hechos artísticos, tanto en el ámbito de uso como en el de producción, tomándolas como ejes vertebradores de los bloques de contenidos para cada una de las áreas.

De este modo, los bloques de contenidos que se establecen para primaria son:

1. Apreciación auditiva y comprensión musical.

2. Expresión, interpretación y creación musical.

3. Comprensión, percepción e interpretación de referentes plásticos y visuales.

4. Producción, expresión y creación en artes plásticas y visuales.

La educación artística debe hacer referencia a propuestas metodológicas que recojan un amplio repertorio de espacios para la experimentación y la práctica utilizando los recursos técnicos y expresivos propios de los lenguajes artísticos. Estas propuestas se deberán contemplar desde planteamientos dirigidos a recoger y desarrollar los procesos reflexivos que llevan implícitos, como son:

– Ikasleak ideiak formulatzera eta hainbat motatako gaitasunak eta ikasitako ezaguerak egoera berrietan erabiltzera bultzatuko dituzten proiektuak proposatzea. Eguneroko bizitzako gaiak, arte-gai jakinak edo beste alorretako edukiekin lotutako gaiak abiapuntu hartuta sor daitezke proiektuak. Bestalde, diziplina arteko proposamenak sortzeko aukera ematen du.

– Ikasleak hainbat tresna —paper-zorro bat edo ikasketa-karpeta bat, esaterako— erabiltzea, lan-prozesuaren hainbat material jasotzeko; izan ere, bere ezaguera eraikitzen ari dela jabetzen laguntzen dio.

– Edukiekin lotutako irudien, abestien eta pieza instrumentalen bilduma zabal eta aberatsa sistematikoki erabiltzea, bai eta gogoetarako eta eztabaidarako bidea emango duten testuak eta beste mota bateko dokumentuak ere. Eztabaida eta gogoeta-eremu horien bitartez, ikasleak harremanean jarduten du, eta ezaguera partekatua eraikitzen du, hainbat motatako begiratuak eta irizpideak oinarri hartuta. Kontuan hartu behar da teknologiak garrantzi handia duela bilaketa- eta hautaketa-baliabide gisa.

Metodologia-iradokizun horien barruan inplizituki sartuta dago ebaluazio-prozesu etengabearen ideia, ikasleen ikaskuntzari eta irakasleen esku-hartzeari lotuta. Hori guztia jasota dago ebaluazio-irizpideetan.

## OINARRIZKO GAITASUNAK GARATZEKO ALOR HONEK EGINDAKO EKARPENA

Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna.

Ingurunea eta naturaguneetako eta gizakiek eginiko lanetako soinu- eta forma-paisaiak, koloreak, lerroak, egiturak, argia eta mugimendua hautematen laguntzen duenez, arte-hezkuntzaren bidez hobeto ezagutzen da mundu fisikoa, eta harreman handiagoa sortzen da mundu horrekin. Hori guztia ez du egiten pertzepzio-prozesuen bidez soilik, metodo zientifikoarekin lotutako prozedurak ere erabiltzen ditu musikaren eremuan eta sorkuntza plastikoan; besteak beste, behaketa, esperimentazioa, aurkikuntza, azterketa, gogoeta... Musika Hezkuntza, Plastika eta Ikusizkoen Hezkuntza ingurune fisikoaz baliatzen dira, ingurune hori sorkuntzarako aitzakiatzat hartuta. Ingurune fisikoa aztertzen dute, manipulatu egiten dute, ingurune hori sortu, pentsatu eta berregin egiten dute, beste dimentsio bat emateko. Gizakiak musika-baliabideen edo baliabide plastikoen bidez sortu dituen naturagunearen begiradak eta ikuskerak gelan lantzen dira.

Arte Hezkuntza irakasgaiak ateak ireki behar dizkie teknologiak eskaintzen dituen aukerei eta ekarpenei. Arte-ikaskuntzaren ekintza-esparrua zabaltzen duen tresnatzat —hau da, informazio- eta adierazpen-eremuak irekitzen dituen tresnatzat— hartu behar da teknologia.

– Plantear proyectos en los que el alumnado formule ideas, ponga en juego competencias diversas y transfiera los conocimientos adquiridos a situaciones nuevas. Los proyectos pueden surgir a partir de temas de la vida cotidiana, de cuestionamientos artísticos concretos, o de temas relacionados con contenidos de otras áreas. Esto permite, por otro lado, abrir la posibilidad de propuestas interdisciplinares.

– Servirse de herramientas como un portafolio o carpeta de aprendizaje, donde el alumnado recoja materiales diversos de su proceso de trabajo, ayuda a la toma de conciencia de la construcción del propio conocimiento.

– Utilizar sistemáticamente un repertorio amplio y rico de imágenes, canciones y piezas instrumentales relacionadas con los contenidos, así como textos y otro tipo de documentos que permitan la reflexión y el debate. Estos debates y espacios de reflexión permiten que el alumnado interactúe construyendo conocimiento compartido, basado en miradas diversas y criterios distintos. Se ha de considerar el papel que juegan las tecnologías como recurso de búsqueda y selección.

Estas mismas sugerencias metodológicas llevan implícita la idea de un proceso permanente de evaluación ligada al aprendizaje del alumnado y a la intervención del profesorado y que se recoge en los criterios de evaluación.

## CONTRIBUCIÓN DEL ÁREA AL DESARROLLO DE LAS COMPETENCIAS BÁSICAS

Competencia en cultura científica, tecnológica y de la salud

La educación artística, desde la apreciación del entorno y los paisajes sonoros y de formas, colores, líneas, texturas, luz o movimiento presentes en los espacios naturales y en las obras y realizaciones humanas favorece un mayor conocimiento e interacción con el mundo físico. No sólo lo hace a través de procesos perceptivos, sino también a través de la utilización de procedimientos relacionados con el método científico como la observación, la experimentación, el descubrimiento, el análisis, la reflexión... ya sea en el área de música como en el de la creación plástica. Tanto la educación musical como la plástica y visual se sirven del medio físico como pretexto para la creación; lo exploran, lo manipulan, lo incorporan, lo piensan y lo recrean para darle una nueva dimensión. Las miradas y visiones sobre el medio natural que ha construido el ser humano mediante recursos musicales o plásticos son objeto de trabajo en el aula.

La educación artística debe estar abierta a las posibilidades y aportaciones que la tecnología ofrece, entendiendo esta última como un instrumento que puede abrir campos de información y de expresión que amplían el marco de acción del aprendizaje artístico

Bestalde, haurrak sentsibilizatu egin behar dira, bizikalitatea hondatzen duten erasoez jabetzeko; besteak beste, kutsadura akustikoa eta ikusmen-kutsadura gero eta handiagoa dela konturatzeko. Horretarako, ingurune fisiko atsegina eta osasungarria izatea pertsona guztientzat garrantzitsua dela ulertzen lagundu behar zaie. Azken finean, ingurumenarekin lotura duten arazo guztiak adierazteko eta arazo horiei erantzuteko tresna izan daiteke artea.

Ikasten ikasteko gaitasuna.

Arte-hezkuntzaren alorrak ikasten ikasteko gaitasuna ematen dio ikasleari; izan ere, prozesuak ikertzeko eta prozesuen plangintza egiteko protokoloak ematen dizkio, eremu kualitatiboan eta emozioen, zentzumenen... eremuetan. Protokolo horiek beste ikaskuntza batzuetan ere erabil daitezke. Horrela, gogoeta bultzatzen da alor hauetan: gizarte-testuinguruko arte-gertaerak, objektuen manipulazioko prozesuak, tekniken eta materialen bidez egindako esperimentuak eta soinuen, egituren, formen edo espazioen zentzumen bidezko azterketa, hartutako ezagutzek haurrei behar adinako jakinduria emateko, hainbat egoeratan erabiltzeko. Oso garrantzitsua da artea ez hartzea berariazko pentsamendu-prozesutzat eta trebetasun ez-unibertsalekin lotutako giza baliabidetzat, haurrek erlazioak finka ditzaten eta ezagueraren hainbat eremutan lortutako ezaguerak artera inporta ditzaten, eta alderantziz.

Matematikarako gaitasuna.

Arte-proiektu askok problema teknikoak ebazteko premia izaten dute, eta, horretarako, matematikaren pentsamendu-tresnak eta baliabideak erabili behar izaten dira. Arte-hezkuntzaren alorretik, matematikarako gaitasuna garatzen laguntzen da. Horretarako, espazioa irudikatzeko hainbat sistema eraikitzeko premiari erantzuten zaio; besteak beste, baliabide hauen bitartez: forma geometrikoen trazatua, mota guztietako objektuen diseinua, formen eta pertsonen eta objektuen kokapenaren arteko erlazioak ulertzeko neurrien eta kokapenen erabilera. Horrez gainera, lagungarriak dira musika-diskurtsoen denboraren irudikapena eta proportzioen, bitarteen eta distantzien erabilera, musikaren oinarrizko elementuetan. Haurrak konturatu behar du artearen eta musikaren historia pentsamendu matematikoarekin topatu izan dela behin eta berriz, eta, alderantziz, eta topaketa horiek ikus daitezkeela bien perspektibei begiratuta.

Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.

Hizkuntza erabiltzen duten ekoizpen plastikoen edo musika-ekoizpenen azterketak eta sorkuntzak hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna garatzeko aukera ematen du. Arte-hezkuntzak gaitasun hori garatzen laguntzen du, alderdi hauen bitartez: sortzen diren komunikazio-trukeen aberastasuna, trukeak arautzen dituzten arauen erabilera, garatzen diren prozesuen azalpena eta alorrak ematen duen berariazko lexikoa. Alde horretatik, kontuan hartu behar da gaur egungo

Asimismo, es necesario sensibilizar a los niños y niñas ante las agresiones que deterioran la calidad de vida, tales como la contaminación acústica y visual creciente, ayudándoles a tomar conciencia de la importancia de contribuir a preservar un entorno físico agradable y saludable para todas las personas. En definitiva, el arte puede ser una herramienta para expresarse y responder ante todo tipo de problemas relacionados con el medio ambiente.

Competencia para aprender a aprender.

El área hace competente al alumnado para aprender a aprender al proporcionarle protocolos de indagación y planificación de procesos en el terreno de lo cualitativo, de lo emotivo, de lo sensitivo... susceptibles de ser utilizados en otros aprendizajes. De esta manera, se contribuye favoreciendo la reflexión sobre los hechos artísticos en el contexto social, la reflexión sobre los procesos en la manipulación de objetos, la experimentación con técnicas y materiales y la exploración sensorial de sonidos, texturas, formas o espacios, con el fin de que los conocimientos adquiridos doten a niños y niñas de un bagaje suficiente para utilizarlos en situaciones diferentes. Es muy importante romper con una idea de arte que lo aísla como proceso de pensamiento específico y como recurso humano ligado a destrezas no universales, para que los niños y niñas puedan establecer relaciones e importar los conocimientos adquiridos en diferentes campos de conocimiento hacia el arte y viceversa.

Competencia matemática.

La resolución de problemas técnicos que precisan muchos proyectos artísticos conlleva la utilización de herramientas de pensamiento y de recursos propios de la matemática. Desde el área se contribuye a la competencia matemática tanto a través de la necesidad de construcción de determinados sistemas de representación espacial, entre los cuales podemos citar el trazado de formas geométricas, el diseño de todo tipo de objetos, el uso de medidas y posiciones para la comprensión de las relaciones entre las formas y la situación espacial de personas y objetos, como a través de la representación temporal de los discursos musicales, la utilización de proporciones, intervalos y distancias en los elementos fundamentales de la música. También el niño y la niña tienen que ser conscientes de que la historia del arte y de la música están llenas de encuentros con el pensamiento matemático, y viceversa, que pueden contemplarse desde las perspectivas de ambos.

Competencia en comunicación lingüística.

El análisis y la creación de producciones plásticas o musicales que integran lenguaje, posibilitan el desarrollo de la competencia en comunicación lingüística. La educación artística contribuye a esta competencia a través de la riqueza de los intercambios comunicativos que se generan, del uso de las normas que los rigen, de la explicación de los procesos que se desarrollan y del vocabulario específico que el área aporta. En este sentido, es necesario tener presente además, que gran

musika-ekoizpenaren zati handi batek, artearen zati handi batek eta inguruneko produktu estetiko gehienek (publizitateak, bideojokoek, mota guztietako irudiek) testuak izaten dituztela. Mezu horiek koloreen, formen, soinuen eta mugimenduen erregistroz ez ezik, mezu horietan guztiz integratuta dauden ahozko eta idatzizko hizkuntzaz osatuta daude. Musikarekin batera doazen testuetan eta irudiekin egindako produktuetan hizkuntza erabiltzeaz gainera, hizkuntza poesia egiteko, emozioak adierazteko... erabiltzea proposatzen da, eta ez denotaziorako soilik.

Abestiak bide egokiak dira lexiko berria eta eraikuntza sintaktiko interesgarriak ikasteko. Hori dela eta, oso tresna erabilgarria dira gure erkidegoko bi hizkuntza ofizialak aberasteko eta finkatzeko eta bitarteko erakargarriak dira bigarren eta hirugarren hizkuntzen ikasketa indartzeko edo hizkuntzak ikasten laguntzeko. Gainera, ahots-prestakuntza egokiaren bitartez, mintzamenarekin zerikusia duten ahalmenak garatzen dira; besteak beste, arnasketa, ahoskera eta artikulazioa. Halaber, lan-prozesuen deskribapenean, emandako ebazpenen arrazoiketan eta artelanen balorazioan ere garatzen da gaitasun hori.

Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna.

Teknologia digitalaren bidez egindako haurrentzako produktu askok eta askok irudia eta soinua dituzte oinarri. Beraz, informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna garatzeko, arte-hezkuntzak alorraren barruko formen eta soinuen erabilera, ekoizpena eta azterketa egokia izan dadin lan egiteko konpromisoa hartzen du. Jakina, eguneroko bizitzan balio estetikoa duten mezuak hizkuntza teknologiko digitala erabiliz sortzeko aukera ere ematen du. Hau da, ikusizko informazioaren eta musika-informazioaren manipulazioarekin lotuta dauden pentsamendu-prozesuak teknologiaren erabilera horiek iragaz ditzaten laguntzen du.

Halaber, teknologia musikarekin eta ikusizko arteekin lotutako prozesuak erakusteko tresna izan daiteke, bai eta ikasleak besteren arte-ekoizpenen sorkuntzara gerturatzeko tresna ere. Horrez gainera, ikasleak bere sorkuntzak egiteko edo lanetarako informazio erabilgarria bilatzeko balio du. Ez dugu ahaztu behar arte-ekoizpenak –bai ekoizpen plastikoak, bai musika-ekoizpenak ere— euskarri teknologikoa erabiltzen duela gero eta gehiagotan, eta arte-gaitasuna eta gaitasun digitala ezinbestean lotuta daudela eremu horretan. Teknologia digitala artelan errazak egiteko tresna gisa erabil daiteke etapa honetan.

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna.

Ikusizko produktuek eta musika-produktuek munduari eta norberari buruzko begiratuak osatzen laguntzen dute, gizabanakoen eta taldeen nortasuna eratzen laguntzen baitute. Artearen alorrak ikuspuntu horretatik ere landu behar ditu arte-gertaerak, ez bakarrik

parte de la producción musical, así como una parte importante del arte actual y de los productos estéticos del entorno(publicidad, videojuegos, imágenes de todo tipo), incorpora textos. Estos mensajes se conforman no sólo de registros de colores, formas, sonidos y movimiento, sino también de lenguaje oral y escrito completamente integrados en ellos. Además, el uso del lenguaje, tanto en los textos que acompañan a la música, como en los productos soportados en imagen, se plantea en claves poéticas, emotivas... que van más allá de lo denotativo.

De forma específica, las canciones son un vehículo propicio para la adquisición de nuevo vocabulario e interesantes construcciones sintácticas resultando, de esta manera, un instrumento útil para enriquecer y afianzar las dos lenguas oficiales de nuestra comunidad, así como un medio atractivo para reforzar o colaborar y en el aprendizaje de segundas y terceras lenguas. Además, a través de una formación vocal adecuada se contribuye al desarrollo de capacidades relacionadas con el habla, como la respiración, la dicción o la articulación. Asimismo, esta competencia se desarrolla en la descripción de procesos de trabajo, en la argumentación sobre las soluciones dadas o en la valoración de la obra artística.

Competencia en el tratamiento de la información y competencia digital.

Gran parte de los productos mediados por la tecnología digital que los niños y niñas utilizan están soportados en la imagen y en el sonido. Por lo tanto, para el desarrollo del tratamiento de la información y la competencial digital, la educación artística adquiere el compromiso de trabajar en el adecuado manejo, producción y análisis de formas y sonidos que el área cubre. Evidentemente, también contribuye a que el lenguaje tecnológico digital se pueda utilizar para producir mensajes con valor estético en la vida cotidiana. Es decir, que los procesos de pensamiento ligados a la manipulación de información visual y musical estén filtrando esos usos de la tecnología.

A su vez, la tecnología puede ser usada como herramienta para mostrar procesos relacionados con la música y las artes visuales y para acercar al alumnado a la creación de producciones artísticas ajenas, así como para la búsqueda de información útil para sus propias creaciones o para la documentación de trabajos. No hay que olvidar que la misma producción artística, tanto plástica como musical, cuenta cada vez más con un soporte tecnológico, donde la competencia artística y la digital se encuentran enlazadas ineludiblemente. La tecnología digital puede ser usada en esta etapa como herramienta de sencillos trabajos artísticos.

Competencia social y ciudadana.

Los productos visuales y musicales ayudan a conformar miradas sobre el mundo y sobre uno mismo, contribuyendo a la conformación de identidades individuales y colectivas. El área artística debe asumir, también, la tarea de abordar los hechos artísticos desde esta

balio formal eta estetikoetatik. Hori dela eta, bitarteko bikaina da gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna garatzeko. Haurrak artearen gizarte-erabilerez jabetzea haurrak beren erantzunak, beren begiratuak, sortzera bultzatzea bezain garrantzitsua da. Besteen proposamenen errespetua eta arte-erantzunen aniztasunaren ulermena inplizituak izan behar dute alor horretan. Bestalde, ez dugu ahaztu behar artea dela eta izan dela iraganeko bizimoduak ezagutzeko lekuko garrantzitsuenetako bat, eta balio handiko dokumentu historikoa dela eta izan dela mundua ulertzeko eta munduan bizitzeko beste modu batzuekin harremanetan jartzeko.

Arte Hezkuntzaren eremuko interpretazioak eta sorkuntzak sozializazioa bultzatzen dute; izan ere, gaur egungo gizartean toki garrantzitsua duten musika-jardueretan (ahotsaren, tresnen, mugimenduaren eta dantzaren bitartez), jarduera plastikoetan eta ikus-entzunezko jardueretan parte hartzea sustatzen dute. Hori dela eta, beharrezkoa da lankidetza sustatzea, ardurak hartzea, arauak eta argibideak betetzea, materialak eta tresnak zaintzea, teknika jakin batzuk ezartzea eta eremuak behar bezala erabiltzea. Baldintza horiek bete behar izateak gainerako pertsonenganako konpromisoa sortzen du, taldean lan egiteak dituen baldintzak betetzea eskatzen du, eta poztasuna sortzen du, denen ahaleginari esker sortutako produktua baita. Talde-lanean akordioa eta adostasuna bilatzeak errespetua, onarpena eta ulermena sustatzen ditu, eta bizikidetza-egoerak sortzen ditu, pertsona arduratsuak, kritikoak eta solidarioak trebatzen lagunduz.

Giza eta arte-kulturarako gaitasuna.

Etapa honetan, Arte Hezkuntzak argi eta garbi parte hartzen du giza eta arte-kulturarako gaitasuna eskuratzen; izan ere, erantzun estetikoak sortzeko balio duenez, haurra jabetzen da bere errealitate soziokulturaleko musika eta arteak erabiliz adierazteko eta komunikatzeko beharra dagoela, gizarte eta garai guztietan egin izan duten bezala. Horrez gainera, ulertzen eta ikasten du arte-gertaerek erabilera eta funtzio ugari izan dituztela eta izan ditzaketela hainbat kulturatan. Arte-gertaerak ezin dira ulertu jatorrizko kultura alde batera utzita, ekoizpen-testuinguruak baztertuta: balioak, ekonomia, ideologia, teknika, erlijioa, zientzia...

Musika, dantza eta artea dira, oro har, Euskal herria komunitate egiten duten lekuko adierazgarrienetako batzuk. Horrez gainera, beste garai batzuetako bizimoduak hurbiltzen dituzte. Oraingo musika-kulturaren ekoizpena eta ikusizko ekoizpena ere ispilua da, gizartea aztertzeko eta gizartera hurbiltzeko, eta, hala, kritikoki ulertzeko. Alorrari esker, hainbat kultura- eta arte-adierazpenetara hurbiltzeko aukera dago, bai gertuko adierazpenetara, bai beste herri batzuetako adierazpenetara ere. Hori dela eta, ikasleak adierazpen horiek balioes-

perspectiva y no sólo desde los valores formales y estéticos, por lo que constituye un excelente medio para el desarrollo de la competencia social y ciudadana. Hacer conscientes a los niños y niñas de los diferentes usos sociales del arte es tan importante como animarles a que produzcan sus propias respuestas, sus propias miradas. El respeto por las propuestas ajenas y la comprensión de la diversidad de respuestas artísticas son valores que deben quedar implícitos en la práctica. Por otro lado, no podemos olvidar que el arte es y ha sido uno de los testimonios más importantes para el acercamiento a formas de vida del pasado, y un valioso documento histórico que nos pone en contacto con otras formas de entender y habitar el mundo.

